

# FAMILIA ARTEAN

## APURTUTAKO KONPONTZEKO TREBETASUNA

### SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...



# 1. AURKEZPENA

“Maitasuna” hitzak laburbildu daike familia hartu-emonen –bikotekideen, seme-alaben eta familia zabalaren artean- zerumuga ideala. Kristauontzat, maitasun hau Jainkoarengandik dator; egundoko oparia da. Ezkontzaren sakramentuaren bitartez, Jainkoak berak bat egiten dau gure maitasunagaz eta, ondorioz, Maitasun nagusiaren zeinu bihurtzen gara besteen aurrean.

Halanda be, familia bizikidetzan, eguna joan eta eguna etorri, urtea joan eta urtea etorri, arraroa da gatazkarik ez agertzea. Pasakorra izan daiteke batzuetan; tirabira eta arazoz beteten dira familia hartu-emonak bestetan. Oldarkortasuna be antzeman daiteke... Krisi larriek eta gorrotoak hartzen dabe maitasunaren lekua. Eta arazoa muturreraino eroan ezkeru, tratu txarrak eta indarkeria azaldu daitezke.

Kristau fedea ez deusku ziurtatzen gatazkarik izango ez danik familia hartu-emonetan. Ikuspuntu baikor eta eraikitzailetik aurre egiten laguntzen deusku. Adore emoten dau tirabirak autortzeko, bakotxaren erantzukizunaz jabetzen laguntzen dau, maitasunaren bidez gatazka gainditzeko itxaropena emoten dau, hartu-emon sendatzailea, alkarrizketa zintzoa eta bestearekiko eta Jainkoarekiko adiskidetze sakona sustatzen dau. Makina bat bikotek lortu dau, dana pikutara joiala pentsatu ondoren, maitasuna berreskuratzea. Batzuetan egoerak ez dau atzera bueltarik eta banantzea izan daiteke azkenean danontzako erabagirik onena. Holarik be fedea lagungarri izaten da nasaitasunez jokatzeke, erabagiaren benetako bereizketa egiteke eta banandutako familia hartu-emonari era sanoan eusteko.

Koaderno honetan, familia maitasunaren inguruko gatazka eta krisiaren inguruan jardungo dogu.

## HASIERAKO DINAMIKA:

Batzarraren hasieran, jokoa egingo dogu girotzeko.

Horretarako, familiaka jarriko gara. Neskato eta mutikoak gelatik atarako dira, azalpena entzun ez daien.

Umeak kanpoan dagozala, “nekazaria” izenburua dauan jokoa azalduko deutsegu helduei.

Familiako helduetako bat sustraia izango da eta bestea nekazaria. Txikiak, patata-uzta izango dira. Sustraia-  
ren helburua, oztopoak jartea izango da, nekazariak uzta eroan ez daian eta horretarako mutiko edo neskatoak hartu ahal izango ditu eta estu oratu, irabazi ahal izateko. Eta nekazariaren helburua, uzta bereganatzea izango da eta horretarako patata/patatak eroan beharko ditu tira eginez.

Txikiei ez deutsegu jolasa azalduko. Sustaiarena egiten dauanaren (umeei ez azaldu) gainean jarteko esango deutsegu.

Dinamizatzaileak ‘hiru’ kontatzeaz batera, nekazariak tiraka hasiko dira eta sustraiek gogor oratuko dabez umeak.

Bere misinoa gainditzten dauanak irabaziko dau.

Jolasa amaitzean, umeei galdetuko deutsegu hari buruz, ia zertan datzan asmatzen daben. Zelan sentitu diran be esango dabe. Txikienei entzun ondoren, helduek adieraziko dabe zelan sentitu diran.



## 2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK



Japoniarrek guretzat ahoskatzeko gatxa dan berba – kintsukoroi- erabilten dabe apurtutakoa konpontzeko trebetasuna aitatzeko. Zeramikazko pieza apurtzen danean, arbasoen teknika honetan maisu diranek, urreak konpontzen dabe, berregitearen zauria bistan itziz, ezkutatu barik, eurentzat, berregindako pieza, sendotasuna, hauskortasuna eta edertasuna batzen dituan sinbolo perfektua dalako. Makaltasunean adierazten dan ahalmen eta edertasunaren sinboloa da.

Ia ikusten ez dan itsasgarria ez ezik, urrez, zidarrez eta platinoz hautseztatutako esmalte berezia darabile. Emaizta, piezaren zartadurei distira eta itxura aparta emoten deutesen “jostura” ikusgarriak dira.

Konpontzeko era honek pieza bakotxaren historia ospatu egiten dau hausturak nabarmenduz eta ez ezkutatuz edo disimulatuz. Hain zuzen be, kintsugi teknikak bizi barria emoten deutso piezari, jatorrizkoa baino ederrago bihurtzen dau-eta.

Gure marka edo orbain guztiak maitatu behar doguz, geure historiaren barri emoten dabe-eta. Zauriek, hutsegiteek danek dabe zeresana gure izaeran.

Bizitzak egindako akats bakotxak irakaspenera itzi deusku, modelatu egin gaitu, gaur egun garan pertsona eginez. Gure akatsak ezkutatu orde z gairditzeko sendotasuna erakusten badogu, euren historiagaz harro, bideko metal preziatuaz estalitako akatsak erakusten dabezan pieza japoniar horreen antza izango dogu.

Horretarako, beste ezer baino lehen, honetaz konturatu behar dogu: gure bihotza konpontzeko, gure gatazkak, krisiak,... gairditzeko erabiliko dogun urrea, zidarra edo platinoa geure bihotzaren barruan datzala.

## 3. BIZIPENA

### UMEAK

Antzara-jokoko taula behar izango dogu. Edozein taula erabili daiteke, lauki bereziak leku beretan izaten diralako antzara-joko guztietan.

Neskato eta mutiko bakotxak bera ordezkatzeko dauan fitxa bat aukeratuko dau eta ohiko arauen araber hasiko dira jokutzen. Salbuespena, ondorengo laukiak dira:

**ANTZARA:** *“Antzara bat eta antzara bi, barriz be niri!”*

Etxean edo eskolan hartu-emonak hobetzeko aldaketa txikiren bat hartzera konprometitu dira. (Konpromiso desbardina aldi bakotxerako)

**DADOA:** *“Dado bat eta dado bi, barriz be niri!”*

Oraingoan lagunduko deutesen pertsonaren izena esango dabe.

**OSTATUA:** *“Txanda galduko dot... hau edo hori dala-eta”*

Pentsatu egin behar dabe: noiz egin deutesen kalte norbaiti, noiz ikusi dabe norbait triste eta ez deutse lagundu, ez dabe babestu... Dadoak botatean, hurrengoan zelan lagunduko deutesen esango dabe.

**LABIRINTOA:** *“Txanda galduko dot... hau edo hori dala-eta”*

Eurei noiz egin deutesen kalte pentsatzeko dabe. Dadoan barriri botatean, laguntza eske eta zer sentitzen daben adierazteko norengana hurreratuko diran esango dabe.

## PUTZUA: "Txanda galduko dot... hau edo hori dala-eta"

Norbaiti min egin deutsen uneren bat gogoratuko dute. Horri ze konponbide emongo deutsen esango dabe dadoak barriro bota aurretik.

## HERIOTZA: "Urteerako laukira bueltatuko naz... hau edo hori dala-eta"

Azken lauki honetan, oso triste sentitu diran eta laguntzarik eskatu ez daben uneren bat gogoratuko dabe.




## HELDUAK

Batzuentzat, bikotea edo familia estatikoa da, geldirik dago.

"Ezkundu ziran, zorientsu bizi eta..." esaten da gaztelaniaz eta hainbat ipuinetan. Hau ez da benetako egoera. Maitasunak, aldiak ditu, gorabeherak, zailtasunak, une ederrak eta gatatzak betetakoak.

Badau antzik makina bat aldiz jokatu izan dogun antza-jokoagaz. Gaurko saioan, zein laukitak igaro garan, ze laukitan gagozan, ze laukitan egon gurako geunken... ikusten saiatuko gara.

Jokoari hasiera emon aurretik, lagun bakotxak fitxa bat aukeratuko dau, bere bikotekidea gehien islatzen dauana.



Laukietako batzuk aztertuko doguz; aldi horretan egon bazarie edo bazagoze, lauki horretara modu fitxa eta idatzi labur-labur bizipenaren azalpen txikia.



### MAITEMINTZEA

Aldi kartsua. Bikotekideak sinbiosian sentitzen dira, beti alkarregaz egon gura dabe. Aldeak ez dira kontuan hartzen, zertan datozen bat hartzen dabe kontuan bakarrik. Aldi honetan bildur jako eztabaidari. **Gogoratu daiguzan labur une honeek.**



### BIKOTEA EGITEA

Ezkongai-aldian denpora igaro ondoren, zaldia hartu eta norabide beretik joteko ordua da. Aldi hau zalantza eta bildurrez beteta egoten da. **Zeintzuk ete dira nire zalantza edo bildurrak? Egia bihurtu ete dira?**



### BIZIKIDETZAKO LEHENENGO URTEAK

Aldirik aktiboena bikoteen artean. Erabagi barriak hartzeko, familia barria eratzeko ordua da. Alkar sakontasunez ezagutu eta alkarren estilo desbardinak onartu. **Aldi hau gogoratuko dogu.**



### AUTOAFIRMAZINOA

Bikotea beste urrats bat emoteko moduan dago. Seguru dagoz euren interesak bete eta bakotxak bere aldetik jarduerak egiteko. Aldaketa handiegia izan daiteke, bikote izatetik banaka jokatzera pasatzen diralako, eta arazoak sortu daitezke. **Zein izan da edo da egitasmo hori? Zelan hartu genduan erabagia?**



### PUTZUA

Hondoratuta gagozanean, nekeza egiten jaku arazoan pentsatzea edo aurrera egiteko bideak aurkitzea. **Gertatu jat holakorik? Eta bikotekideari? Gainditu dogu? Zelan?**



### LANKIDETZA

Bikotekideek bat egiten dabe jarduerak batera egiteko. Ilusinoz betetako unea izan daiteke edo, askotariko eritxien eraginez, makina bat tirabira sortu. **Zelakoa izan zan edo da une hori?**



### LABIRINTOA

Bikotekideen bitzitzan izan daitekez unek non gatazkak etenbakoak diran. Behin eta barriz ari dira eztabaidan eta arrazoi bardinengaitik. Egoerak ez dauala urtenbiderik emoten dau. **Egon gara edo bagagoz egoera horretan?**



### ZAHARTZAROA

Gurasoekiko edo seme-alabekiko arazoak dirala-eta, batzuetan ahaztu egiten dogu bikotekidea; arazo horreek, beste batzuetan, gorabeheren iturri dira bikotean. **Lauki honetan islatuta sentitzen naz?**



### KORRONTEA

Beharbada beste pertsona batzuek, beste egitasmo batzuek... bata ala bestea desbideratu egiten gaitue bikotearen norabidetik... Korrontea konturatu barik heltzen da eta helburutik aldendu gaitez. **Hori gertatu ete jat? Hori gertatu ete jako bikotekideari?**



### GAREZURRA

Konfiantza galdu egin da, ez dago inongo konplizitaterik, dinamika toxikoan sartu dira, ez da aldaketan sinisten, ez dago baterako egitasmori eta maitasuna amaitu da. **Bikotea hilda dago. Pentsatu dot holakorik noizbait?**



### ANTZARA

Antzara bat eta antzara bi, barriz be niri! Bardin da taulako ze laukitan gagozan, antzararen laukira heltzean, bizkor egiten da aurrera. **Zein da gure bikotekidearen antzara? Zerk bultzatzen gaitu?**



### DADOA

Lauki batetik bestera joateko, dadoa bota eta zenbaki jakin bat atara behar da. **Ze zenbaki behar dogu une honetan? Ze aldaketa behar dogu?**



### ZEZENA

Batzuetan, bikotekideak eztabaida sutuan ari diranean, inguruko guztiaz jabetu ez eta dana aurretik eroaten da. **Zer edo nor eroaten dogu aurretik eztabaidan ari garanean?**

**Heldu gara jokoaren azkenera!**

**Baina jarraitu aurretik, fitxetan jarriko dogu arreta. Fitxak ez nau ni bakarrik irudikatzen. Bikote lez egiten dihardugun ibilbide honetan bidelagun dogun Jainkoa irukatzen dau. Holan sentitu dot? Sentitu dot bere presentzia? Emon dodazan urrats guztietan, ondoan izan dodala sentitu dot? Holan ez bada, ze urratsetan ez?**

## 4. JAINKOARI ENTZUN

Entzun daigun zelan hiz egiten deuskun eta ikusi daigun zelan argi egiten deuskun Jainkoak familia maitasunezko errealidade honetan. Lehenengo eta behin, Amoris Laetitia Frantzisko aita santuaren aholku-hitzeko berbak irakurriko doguz eta, ondoren, Paulok Korintoarrei idatzitako gutuneko berbak.

**Amoris Laetitia** (bikotean edo talde txikietan irakurteko eta komentatzeko)

*“Biziaren luzapenari esker, beste sasoi batzuetan ohikoa ez zana gertatzen da: hartu-emon intimoak eta bata bestearena izateak lau, bost edo sei hamarkadatan irautea dakarre eta horrek ezinbesteko egiten dau behin eta barriro alkar aukeratu behar izatea” (AL 163).*

*“Erru guztia bestearena dala nabarmena iruditu arren, ezingo da krisia gainditu, bakarrik besteak aldatu behar dauala pentsatu ezker. Norberak zertan jadetsi daiken heldutasuna edo zertan egin behar dauan onera be galdetu beharra dago gatazka gainditu ahal izateko” (AL 240).*

*“Ezin deusagu alkarri agindu bizitza osoan sentimentu berak izango doguzala. Ostera, baterako egitasmo egonkorra izan daikegu, alkar maitatzeko eta bat eginda bizitzeko konpromisoa hartu daikegu” (AL 163).*



"Kasu batzuetan, norbere duintasunaren eta seme-alaben onaren balorazioak bestearen larregizko asmoei, bidegabekeria handiari, indarkeriari edo errespetu falta kronikoari mugak jartea eskatzen dau. Autortu beharra dago kasu batzuetan banantzea ezinbestekoa dana. Eta badira kasuak non moral aldetik nahitaezkoa dan" (Al 241).

"Holan, konpondu bako gatazkaren erdian, eta nahiz eta sentimentu nahasi asko bihotzean bueltaka izan, bizirik eusten jako egunero maitatzeko erabagiari, bata bestearen jabe izaten, bizitza osoa konpartitzen eta maitatuz eta parkatuz bizitzen irauteko erabagiari. Bietako bakotzak hazteko eta aldaketa pertsonalerako bidea egiten dau. Bide horretan, maitasunak urrats eta aldi barri bakotxa ospatu egiten dau" (AL 163).

"Alkarri agintzen deusagun maitasunak zirrara, sentimentu edo gogo-aldarte guztiak gainditzen ditu, barne hartu badaikez be. Maitatze sakonagoa da, bizitza osoa nahasten dauan bihotzaren erabagiagaz" (AL 163).

"Estimagarria da Eleizak akonpainamentu eta aholkularitzarako eremuak eskaintzea bertan maitasunaren hazkundearen, gatazkak gainditzearen, seme-alaben hezkuntzaren inguruko kontuan aztertzeo. Askok estimatzen dau sakramentu-adiskidetzearan eta Eukaristian esperimintatzen dauan graziaren indarra, ezkontzan eta familian agertzen diran erronkei aurre egiteko lagungarri da-eta" (AL 38).

**Esaldi honeek patxadaz eta arretaz irakurri ondoren, zer esango zeunke, zertara deitzen zaitu guzti horrek?**

San Paulo apostoluak Korintoarrei idatzitako gutuna (hots egin eta bakarka hausnartu).

"Maitasunik ez badot, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naz. Nahiz eta profezia doea izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badot, ez naz ezer. Dodan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanda be, maitasunik ez badot, ez naz ezer. Maitasuna eroapen onekoa eta bihozbera da; ez dau bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsagabea, ez berekoia, ez haserrekorra; kaltea ez dau go-goan hartzen. Ez da bidegabekeriaz pozten, baizik eta egian pozten da. Maitasunak dana parkatzen dau, dana sinesten, dana itxaroten, dana ondo erroten. Maitasuna ez da behin be itzaltzen" (1 Kor 13, 1-8).

## 5. ALKARRIZKETAN JARDUN

### HELDUAK: Ontzia berregiteko galderak

Kintsugi teknika zaharraren bidez apurtutakoa konpontzen da, ezkutatu edo bota barik. Teknika hori metafora lez aukeratu dogu garapen eta berregite pertsonalerako, istripuek, zauriek, sufriarazten gaituen gauzek hazten be laguntzen deuskuela gogoratzeko. Bitxia bada be, askoz eder, sendo eta preziatuak gara, zauri horreek jasan ondoren, osatzeko gauza bagara. Beraz, zoritxar, krisi, ezbehar... edo antzeko bat sufritu ondoren barritzea da erronka, ez txikituta geratzea, birsortzea baino, gure zauri eta orbanei aparteko balioa emonez.

Kintsugi teknikaren urratsak ikusi eta gure bizitzara zelan eroan daikeguzan aztertuko dogu.

**1. urratsa - EZBEHARRA:** Noiz, zelan eta non hasten da guztia? Zerk eragiten dau ezbeharra eta objektua apurtzea? Zatiak batu eta konponketa zelan egingo dan pentsatuko dogu.

Gure ontziak kalte larriagoak be izango ebazan eta horreek gogoratuko doguz.

Ez hondoratzea da garrantzitsuena; gertatzen jakunaz jabetu eta "gure ontzia konpontzeko" bideak arakatu, "zatiak batu". Normalean, zer egiten dogu holako egoeretan?, maitasunez hartzen dogu alkar?, bigarren aukera emoten deusagun alkarri? Konponbideetan pentsatzen dogu ala egoerak gainditu egiten gaitu? Gertatutakoa aztertzen dogu? Erru guztia besteari bota orde, geuk izan daikegun errua be autortzen dogu? Une honeetan, konponbideak bilatzen saiatzen gara?

**2. urratsa - BERREGIN (muntatu):** objektuaren zatiak garbitu, tresnak dalako 'puzzle' horren piezen aurretiko muntaia egingo dogu, itsasgarria prestatu, piezak lotzeko (piezaren bat falta bada, nahasketa berezia prestatu eta zuloa bete).

Egoera honeetatik atara gura badogu, egitasmoa prestatu behar dogu, gertatutakotik, akatsetatik ikasi, ez errepikatzeko. Gertaera guztiek dabe arrazoiren bat; denpora hartu behar dogu gauzak ondo pentsatu eta gure ontziaren piezak zelan alkartu argi ikusteko, piezak lotzeko ze itsasgarri erabiliko dogun erabagitzeko. Kostatu egiten jaku krisiaren ostean altxatzea? Konpontzen saiatzen gara? Badogu pazientziarik? Zaintzen dogu geure burua holako uneetan? Adiskidetzea ete da nahasketa berezi hori danok izaten doguzan krisiak gainditzeko? Nahasketa hori parkamena eta fedea izan daiteke? Pentsatzen dogu Jainkoarengan une horreetan? Kontuan hartzen dogu laguntza eskatzeko aukera, bakarrik konpontzerik ez badogu? (esate baterako, Lagungo familia biderapenerako zentroari).

**3. urratsa - ITXARON:** soberan dagoana kentzeko, piezak alkarri ondo lotzeko eta itsasgarria lehortzeko unea da.

Denpora behar da, ontzia berregin eta emaitza ona lortzeko. Sendotu egin behar dogu arlo emozionalean, geure buruari denpora emon eta egoera onartu... Ez da ona bakartzea, danok egiten dogu akatsen bat: zeure sufrimentuaz hitz egin eta sufrimentuari aurre egitea lagungarri izan daiteke aurrera egiteko. Arretaz aztertzen dogu gertatutakoa? Jarreraz aldatzen dogu? Barruan min egiten deuskun guztia ezabatzeko gauza gara?

**4. urratsa - KONPONDU:** lehortu ondoren, hondakinak garbitu eta lixatu liso-liso geratu daiten.

Une honek zauriak orbaindu egiten ditu. Ikusi ze arrasto izten deutsuen kolpatzen zaituen esperientziek, zeure garaipenaren sinbolo dira-eta. Ez zara lotsatu behar, harrotu baino.

Sendoago ataraten gara une horreetatik? Nekeza egiten jaku parkatzea? Denporaren buruan, egoera horri lotuta jarraitzen dogu ala aurrera egiteko gauza izan gara? Ze lan egiten dogu geure barruan, sendatu ahal izateko?

**5. urratsa - AZKEN IKUTUA:** urre-hautsa pintzel batean ipini. Laka lehortuta, zetazko kotoi bola pasatu larregizko hautsa kentzeko eta lakaz babestu.

Une honek, berrito pozik egoteko, distira egiteko baimena emoten deusku. Pertsona, familia, hau da, urre-hauts hori bilatu behar dogu barritzen lagundu deigun; pertsonak, balio espiritualek, era bateko eta besteko laguntzek gure bizitza busti behar dabe. Zein da gure 'urre-hautsa'? Emoten deusagu askatasuna geure buruari, barritu eta berrito pozik egoteko?

**6. urratsa - AZKEN IKUTUA:** konpondutako objektuari begiratu; dotoreziaz erakusten ditu bere urre koloreko orbanak.

Geure aurrerapenez, ontziaren konponketaz harro egoteko unea da. Badakigu ikaskuntzez, hazkuntzez harro egoten?

Eta ezbeharrak oso larria izan bada eta konpontzeko eta zatiak alkartzeko biderik ez badago?



**UMEAK:** Ontzia buztinez egin. (Buztinik ez badago, plastilina egin daiteke).

1. Hasteko, buztina zabaldu arrabolaz eta zirkulua ebaki; horixe izango da ontziaren oinarria.
2. Ondoren, buztinezko lukainka modukoak egin eta bata bestearen gainean itsatsi oinarrian jarri dogun zirkuluaren gainean.
3. Hori amaitu ondoren, dagoan lez itzi edo junturak atzamarrez lisatu.
4. Azkenik, orea lehortuta dagoanean, norbere gustura pintatu.

Ontzia egin ondoren, galdera honeei erantzungo deusegu:

Zelan egon dogu ontzia? Presaka ala patxadaz?

Zer egin behar izan dogu apurtu ez eiten?

Buztinaren antzera, gure ingurukoak zaindu egin behar doguz. Kontu handiz ferrekatu egin behar doguz eta ez kolpatu, apurtu egin daitezke-eta.

Zaintzen doguz gure senideak? Eta etsaiak?

## 6. OTOITZEAN ADIERAZO

*Parkatu*

*Bidean jarraituko dogu,*

*porrot eta kolpeak gaindituz.*

*Maitatzen jarraituko dogu,*

*bakardade eta desertzinoak gaindituz.*

*Historiak, oroimenak eta*

*etorriko danaren itzaroteak*

*iraungo dabe.*

*Sakabanatutako zatiak,*

*ametsen zatiak*

*alkartu egingo doguz*

*zauritutako besoak estutu.*

*Hirurogeta hamar bidez altxatuko doguz begiak eta bideari berrekingo deusegu.*

*Gu bezain makal,*

*gu bezain sendo,*

*gu bezain gizaki*

*giran beste batzuekin batera,*

*ildoak egingo doguz*

*lur emonkorrean*

*haragi eta hazurrekzo ebanjelioa*

*ereiten jarraitzeko*

*irrikarik sakonenak ureztatzen jarraitzeko,*

*eta erneko da bizia, geldiezin.*

Jose Maria Rodriguez Olaizola, sj

## 7. ETXERA EROAN...

**N**Ontzia eroango dogu

eta bistan jarriko,

ahaztu ez daigun.